

2022 URRIA—AZAROA
OCTUBRE—NOVIEMBRE

Getxo
bizi ezazu

2022ko URRIA

Doako alea
ZENBAKI BEREZIA

www.getxo.eus
getxoudalarentsa@getxo.eus

Iparra galdu gabe

X Jornadas sobre Iparralde



DOM

≈ DOM CAMPISTRON ≈

Iparra Galdu Gabe zikloaren aurtengo irudia Iparraldeko Dom Campistrón marrazkilariak sortu du. 1994an jaio zen eta Baigorri bizi da, Nafarroa Beherean. Iaz *Bekatorosak* bere lehen album ilustratua argitaratu zuen. Honela aurkeztu digu Domek berak, aurtengo Iparra Galdu Gaberako egin duen irudia:

“Ilustrazio honetan irudikatu ditut musika, dantza, literatura eta antzerkia. Bi artista queer ikusten dira, arte forma horiek guztiak nahasten dituzte emanaldi garaikide eta aitzindari baten osatzeko. Taulazko eszena zaharraren gainean dira, bertze artista anitz izan ziren bezala haiek aitzin. Badakite nondik etortzen den haien Kultura eta nora eraman nahi duten. Ilustrazioaren gainean ipar izarra marraztu dut, erakusteko Iparraldera begiratzen dugula egun horietan.”

DOM



Urriak 8 Octubre

19:00 - Santa Eugenia plaza (Romo)

DANTZA-PLAZA

Patxi eta konpañia

Lapurdi PATXI PEREZ dantzariaren inguruan sortutako musika-talde honek duen grina da jendea musikara eta dantza festara erakartzea. Mundu guztia dantzan hasiko da, Patxi urratsez urrats jendea gidatzen duenean. Fandangoak edo euskal jauziak beste lurralde batzuetako dantzekin nahasten dira: "mazurka", "bourrée" edo beste "skotish"ekin.

Ekitaldi eder honek hasiera emango dio Getxoko Dantza-Plaza egitarauari.

Formado en torno al bailarín de Lapurdi PATXI PEREZ, este grupo de música tiene la pasión de atraer a la gente a la música y al baile. Todo el mundo se pone a bailar cuando Patxi conduce y arrastra a bailar paso a paso. Fandangos o "euskal jauziak" se mezclan con bailes de otras regiones como «mazurka», «bourrée» o con otros «skotish».

Con esta actuación se dará inicio al programa de Dantza-Plaza de Getxo.

Antolatzailea//Organiza: Agurra, Berantzagí, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi-Eskola dantza-taldeak eta Getxoko Kultur Etxea. www.getxo.eus.



Urriak 20 Octubre

Iparaldeko komunikabideak
Medios de comunicación de Iparralde

18:30 - Azebarri (Euskal Herria kalea 14, Algorta)

SOLASALDIA + DASTAKETA//TERTULIA + DEGUSTACIÓN

Ipar eta hego Komunikabideak eta komunikazio hariak

Pantxika Maitia (Kanaldude web telebista)
Pepe Aizpuru (Euskal Irratiak)

Aurkezlea: UNAI BREA



Kanaldude Nafarroa Behereko TB webgunea da, eta euskara hutsezko saioak ematen ditu. Parte hartzeko telebista-kanal honek erreportajeak, zuzeneko kultura-ekitaldiak, telebista-jokoak edo talk-showak emititzen ditu. Programak zuzenean transmititzen dira eta gero Interneten daude eskuragarri.

Iparraldeko lau euskal irrati batzen dituen federazioa da *Euskal Irratiak*: Antxeta Irratia (Hendaia), Gure Irratia (Uztaritze), Irulegiko Irratia (Donibane Garazi) eta Xiberoko Botza (Maule). Orotara, 30 lagun inguru ari dira lanean federazioan.

Solasaldiaren ostean, Iparraldeko eta bertoko garagardoen dastaketa *Etxeandia Garardauaken* eskutik.

Antolatzailea//Organiza: HIRUKA www.hiruka.eus

Kanaldude es una web TV de la Baja Navarra, que emite programas íntegramente en euskera. Se trata de un canal de televisión participativo que emite reportajes, eventos culturales en directo, juegos de televisión o incluso talk-shows. Los programas se transmiten en vivo y luego están disponibles en Internet.

Euskal Irratiak es una federación que une a cuatro radios vascas de Iparralde: Antxeta irrati (Hendaia) – Gure Irratia (Uztaritze) – Irulegiko irrati (Donibane Garazi) y Xiberoko Botza (Maule). En total, en la federación trabajan alrededor de 30 personas.

Tras la tertulia, degustación de cervezas de Iparralde y autóctonas a cargo de *Etxeandia Garardauak*.

Urriak 22 Octubre

18:30- Azebarri (Euskal Herria kalea 14, Algorta)

LITERATURA

“Bekatorosak” DON CAMPISTRON

Liburu ilustratuari buruzko solasaldia

Dom Campistrón, album ilustratu honen sortzailea, Alduden bizi da (Nafarroa Beherea). 2019an Nafarroa Behereko hainbat herri txikitako zazpi lagun elkarrizketatu zituen, zazpi bekatorosa (bekatari), lesbiana, queer, gay. Eta ondoren, paperera ekarri ditu haien borrokak, bakartasunaren mina eta bizi izan dituzten eraso homofoboak, baita beren maitasun-istorioak, elkartasuna eta itxaropenak ere. “Bekatorosa naiz. Hala sortu nintzen”, dio liburuaren aurkezpen-orrian.

Solasaldiaren ostean mokaua eta zozketa izango dugu: DOMen ilustrazio bat eta hurrengo UKITX topaketaren liburua (Beatriz Fernándezen “Hizkuntza gogoan”).

Dom Campistrón, creadora de este álbum ilustrado, vive en Aldude (Baja Navarra). En 2019 entrevistó a siete personas de varios pueblos pequeños de la Baja Navarra, siete “bekatorosa” (pecadores-as), lesbianas, queer, gays. Después ha traído al papel sus luchas, el dolor de la soledad y los ataques homófobos que han vivido, así como sus historias de amor, su solidaridad y sus esperanzas. “Soy pecadora. Así nació”, dice en la presentación del libro.

Y tras la charla tendremos lunch y sorteo de una lámina de la artista y del libro del próximo encuentro de UKITX (“Hizkuntza gogoan”, de Beatriz Fernández).

Antolatzailea//Organiza: EGIZU (UKITX) www.egizu.eus
Eman izena//Inscripciones: www.labur.eus/irakurzaleak 619 935 541 egizugetxo@gmail.com



Urriak 23 Octubre

12:00- Fadura (Areto nagusia//Salón de actos)

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA//ESPECTÁCULO INFANTIL

Mañeder

MAITEDER ikuskizunak bidaia bat biziaraziko die umeei zein helduei. Bi antzezleen alaitasunak eta irudimenak mundu osoan zehar eramango dute publikoa, hizkuntzen bidez, baina baita bidaia intimo batean ere. Poesiak umore-puntuak tartekatuz hitz egiten du, eta azkenean, proposamen irekia plazaratzen da: ikusle bakoitzak bere Mañeder irudikatu eta sor dezala.

El espectáculo MAITEDER hará vivir un viaje tanto al público infantil como adulto. La alegría y la imaginación de los dos intérpretes llevarán al público por todo el mundo, a través de las lenguas, pero también en un viaje íntimo. La poesía habla con toques de humor y al final se lanza una propuesta abierta: que cada espectador-a imagine y cree su Mañeder.

Antolatzailea//Organiza: SENDI (EGIZU).
Gonbidapenak//Invitaciones: 622 433 085 sendi@egizu.eus
5 urtetik gorakoentzat (mesedez, heldu bakarra ume bakoitzeko)
A partir de 5 años (por favor, únicamente una persona adulta por cada niño-a)



Azaroak 4 Noviembre

21:00 - Muxikebarri (Arrigunaga) - 5 €

KONTZERTUA//CONCIERTO

Odei Barroso "TERAPIA"

Odei Barroso bertsolaria eta raplaria da. Urruñarra da (Lapurdi) eta Baionan bizi da. 2zio taldea desegin ondoren, bere bakarkako lehen lana aurkezten digu: Terapia.

Askotariko mezuz eta erritmoz beteriko diskoa da, gai unibertsalak, barnezalantzak, gai intimoak, kritika soziala... jorratzen ditu.

Odei Barroso es bertsolari y cantante de rap. Es de Urruña (Lapurdi) y reside en Baiona. Tras la disolución del grupo 2zio nos presenta su primer trabajo en solitario: Terapia.

Un disco lleno de mensajes y ritmos diversos en el que trata temas universales, dudas internas, asuntos íntimos, crítica social...

Antolatzailea//Organiza: Getxoko Kultur Etxea www.getxo.eus
Sarreren salmenta: Algortako eta Romoko kultur etxeetan eta Muxikebarriko txarteldegian (kontzertua hasi baino ordubete lehenago)
Venta de entradas: Aulas de Cultura de Algorta y Romo y en la taquilla de Muxikebarri (una hora antes del concierto)



Azaroak 5 Noviembre

20:30 - Azebarri (Euskal Herria kalea 14, Algorta)

KONTZERTUA//CONCIERTO

Frikun

Iparraldeko Frikun taldeak *Ezerezko herria* bere bigarren diskoa argitaratu du, afro-rock joerari loturik. Mendebaldeko Afrikako musika elektrikoetan inspiraturik, entzuleak dantzan jarriko dituzten doinu erakargarri eta erritmikoak batu dituzte disko berrian. «Basamortuko bluesaren, edota runba angolarraren eragin handia dugu, baina halere, rocka izaten segitzen du» adierazi digu Nico Perret (Iholdi-Martxuta, Nafarroa Beherea) taldeko kantari eta baxu-joleak.

El grupo de Iparralde Frikun ha publicado su segundo disco, *Ezerezko herria*, ligado a la tendencia afro-rock. Inspirados en las músicas eléctricas del África Occidental, el nuevo disco aún melodías atractivas y rítmicas que pondrán a bailar a las personas asistentes. "Estamos muy influenciados por el blues del desierto o la rumba angolana, pero aún así sigue siendo rock" señala Nico Perret (Iholdi-Martxuta, Baja Navarra), cantante y bajista del grupo.

Antolatzailea//Organiza: Azebarri www.azebarri.eus



Abenduak 3 Diciembre

20:00 - Muxikebarri (Ereaga) - 6 €

KONTZERTUA//CONCIERTO

Anje Duhalde

Anje Duhalde ezinbesteko pieza da euskal folk eta rock-aren garapena ulertzeko. Gure nortasunaren sustraiak mundu modernoarekin lotzen dituen funtsezko maila.

Oraingoan, Arrangoitzeko (Lapurdi) artistak agertokitik transmititzen duen energiaren baliatuz, bere abestien izaera sentimentala dastatu ahal izango dugu.

Anje Duhalde es una pieza esencial para entender el desarrollo del folk y del rock vasco. Un eslabón que une nuestras raíces de identidad al mundo moderno.

En esta ocasión, valiéndose de la energía que transmite desde el escenario el artista de Arrangoitze (Lapurdi), podremos saborear el óxido sentimental de sus canciones.

Antolatzailea//Organiza: Getxoko Kultur Etxea www.getxo.eus
Sarreren salmenta: Algortako eta Romoko kultur etxeetan eta Muxikebarriko txarteldegian (kontzertua hasi baino ordubete lehenago)
Venta de entradas: Aulas de Cultura de Algorta y Romo y en la taquilla de Muxikebarri (una hora antes del concierto)




Iparria

galdu gabe

X Jornadas sobre Iparralde

2022
URRIA-AZAROA
OCTUBRE-NOVIEMBRE

Doako alea
ZENBAKI BEREZIA
www.getxo.eus
getxudalarentsa@getxo.eus
OCTUBRE 2022



DOM

DOM CAMPISTRON

El cartel del ciclo Iparra Galdu Gabe de este año es obra de la dibujante de Iparralde Dom Campistron, nacida en 1994 y que reside en Baigorri (Baja Navarra). El pasado año publicó *Bekatorosak* su primer álbum ilustrado. Así nos presenta la propia Dom, la imagen que ha creado para Iparra Galdu Gabe de este año:

“En esta ilustración he representado la música, la danza, la literatura y el teatro. Se ven dos artistas queers que mezclan todas estas formas de arte para completar una actuación contemporánea y pionera. Y lo hacen, como otros muchos antes que ellos y que ellas, sobre un viejo escenario de madera. Saben de dónde viene su Cultura y a dónde quieren llevarla. Sobre la ilustración he dibujado la estrella polar para mostrar que esos días miramos hacia Iparralde.”

DOM



-
-
-
-
-
-
-
-
-